

LETRA GOZOAK

Ardoa

Ontzi banaten
emaidak ardoa,
emaidak maite
zure itzetan
lizarra bezin
mardul ta eze,
goietan gora
iasoko nauan
edan gozoko
zure itzaren
mama goxua.

Gure eskuetan
edontzi banaz
eta, betiko
itxaropenaz,

biok batera
agurtuz gero
gurea dan gaba
edan dezagun

aokera gozo
maitagarritzko
edari ezti
onesgarria.

Muniategi'tar Sabin

Umetxoak

Bedar-kolorez dago
zeruan izarra,
bakar eta eldurik
muiñoan sagarra.

Umeak jolasean
or alaitsu parra,
gaztetxo diralarik
barnean sugarra.

Ta, ta, ta,
eskutxuak artuz.
ta, ta, ta,
alkarri oratuz.

Goizean, arratsean
itzontzi umeak..
Ez jakuz aspergarri,
ez, jolas-zalcak.

Landan dabil aizea,
lora artean bizkor;
gure umeak ditugu
gero-frutu pozkor.

Ta, ta, ta,
eskutxuak artuz.
ta, ta, ta,
alkarri oratuz.

Igotz